



Getxo

LAGUNKOIA
AMIGABLE

bizi ezazu





Adineko pertsonekin lagunkoiak diren hirien munduko sarea OMEak sustatutako proiektua da. Gaur egungo munduko biztanleriaren ezaugarri biri erantzuteko jaio zen, alegia, **zahartze demografikoa** eta **urbanizazio prozesua**. Ekimen honen bitartez, mundu osoko udalerrietara iritsi nahi dugu, gehien bizi izan direnen ongizatea zain dezaten.

GETXO LAGUNKOIA ekimena honela dago:

KOKATUTA

Adineko pertsonekin lagunkoiak diren hirien munduko sarea (AFC-2005),

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bultzatua.

EGOKITUTA

Geure testuinguruari egokituta,

EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK sarearen

bidez, Eusko Jaurlaritzak sustatua,
eta

Bizkaiko Foru Aldundiaren **“Bizkaia Lurralde Lagunkoiaren”** bidez.

OINARRITUTA

ZAHARTZE AKTIBOAREN paradigmaman.

Osasunaren, parte hartzearen eta segurtasunaren aukerak optimizatzeko prozesua da, pertsonak zahartzen diren heinean beraien bizi-kalitatea hobetzeko helburuz.

“Getxo lagunkoia” bezalako proiektu batean sartzea **“bizitza-luzeraren iraultzari” erantzukizunez aurre egitea da.**

Une honetan, Getxo udalerrria bi prozesu garrantzitsu hauetan murgilduta dago, honelako ekimen batean sartu beharra oinarritzen dutenak:

A

Batetik, **udalerriko biztanleriaren ia herenak 60 urte edo gehiago** dituela.

B

Bestetik, daukagun **hirigintzako garapen iraunkorra**, etxebizitza, aparkalekuak eta mugikortasuna errazteko politikak sustatzeko kontzientziatuta dagoena.






Adineko pertsonekin lagunkoia den hiri batek **bere egitura eta zerbitzuak berrantolatzen ditu**, kalitate, segurtasun eta erosotasun ahalik eta handienak eskaintzeko pertsona guztiei, beraien gaitasunak gorabehera. Horrela, gizarte-bizitzaren eremu guztietan parte hartzea errazten zaie.

Garrantzitsua da azpimarratzea Getxo udalerrri lagunkoia izan dadin **adin guztientzat** diseinatutako udalerrria izan behar dela, eta ez bakarrik adinekoentzat hobekuntzak lortzeko helburuarekin.



4 FASEKO zikloa





Ekintza garrantzitsuen talde fokalak eratzea da, adineko pertsonak elkarrizketatzeko. Horrela, pertsona horiek euren hiriaren alderdi positiboak eta negatiboak identifikatzea nahi dugu, 8 ardatz hartuta:





Lehenengo hiru alorrek (Estali gabeko espazioak eta eraikinak, Garraioa nahiz Etxebizitza) udalerriaren **ingurune fisikoaren** funtsezko ezaugarriak jasotzen dituzte. Ezaugarri horiek erabakigarriak dira norberaren **mugikortasunean, segurtasunean**, osasunaren sustapenean eta gizarteko parte hartzean.

1. Estali gabeko espazioak eta eraikinak

2. Garraioa

3. Etxebizitza

Hurrengo hirurek (Parte hartze soziala, Errespetua eta gizarte inklusioa, zein Herritarren parte hartzea eta enplegua) ingurune sozial eta kulturalaren zenbait elementu erakusten dituzte, **pertsonen parte hartze eta ongizate subjektiboan** eragina dutenak batik bat.

4. Parte hartzea

5. Errespetua eta gizarte inklusioa

6. Enplegua eta boluntarioritza

Azken bi arloetan (Komunikazioa eta informazioa, nahiz Gizarte eta osasun zerbitzuak), dauden **komunikazio eta informazio bitarteko eta moduen** analisia egiten da, eta adineko pertsonen hirian dauden laguntza eta osasun izaerako gizarte zerbitzuak ezagutzen eta erabiltzen dituzten aztertzen da.


7. Komunikazioa eta informazioa

8. Gizarte eta osasun zerbitzuak



METODOLOGIA BEHETIK GORA lan egitea da. Horrela, herritarren parte hartzea, oro har, eta adineko pertsonen parte hartzea, bereziki, proiektuaren oinarria dira.

Eragileak, behetik gora (Bottom-up)





IKERKETA

1. Udalerriko **iturri sekundarioen diagnostikoa** egin.
2. **Ikerketa kualitatiboa** burutu.

EKINTZA

1. **Talde motorra** sortu.
2. Partaidetza foroak sortu, **ekintza plan** bat egiteko.



EKINTZA

1. **Talde motorra** eratu

TALDE MOTOR
ANTOLATZAILEA ETA
BURUZAGITZA DAUKANA

2. **Ekintza plan** bat egiteko
partaidetza foroak sortu.


PARTAIDETZA FOROAK
HERRITARREN TOPAKETAK

World café





9 TALDE FOKAL eratuko dira.



8
ADINEKO PERTSONEK ERATUTAKO TALDEAK,
genero, adin eta autonomia- nahi
prestakuntza-mailaren aldetik ANIZTASUNA
adieraziko dutenak.



1
- ZAINZAILAILEEN TALDEA
- GKEak
- ZAHARTZEARI LOTUTAKO ZERBITZUAK
EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEAK

ZURE PARTAIDETZA BEHAR DUGU!!!



AURKEZPENA

**URTARRILETIK
OTSAILEKO
lehen
hamabostaldira**

DIAGNOSTIKOA

**OTSAILEKO
bigarren
hamabostalditik**

**MARTXOKO
bigarren
hamabostaldira**

EKINTZA PLANA

APIRILEAN

